AIAKO HARRIA MENDI MARTXA 2022

ARAUDIA



Arritxulo
Turismo aterpetxea
Reg: BSS00020

Lesaka Bidea Z/G - 20180 Oiartzun - 943 58 00 10 - info@arritxulo.org

AIAKO HARRIA II. MENDI MARTXAREN ARAUDIA

1. **Artikulua: PROBA ETA ANTOLATZAILEA**
   - Aiako Harria Mendi Martxaren bigarren edizioaren antolakuntza Arritxulo Mendi Aterpetxeak hartzen du bere gain.
2. **Artikulua: PROBAREN EGUNA, LEKUA ETA ORDUA**
   - Ibilbide neurtua eta mendi-lasterketaren irteera eta helmuga Oiartzungo Arritxulo Mendi Aterpean izango dira, 2022ko maiatzaren 8an izango da (igandea).
   - Ibilbide neurtua goizeko 8:30etan abiatuko da.
   - Mendi-lasterketa goizeko 9:30etan hasiko da.
3. **Artikulua: IBILBIDEA**
   - Ibilbide bera izango da ibilbide neurtua eta mendi-lasterketarentzako, **16km**ko luzera eta **850 metroko** desnibelarekin.
   - Ibilbidea zirkularra izango da, irteera eta helmuga Arritxulo Mendi Aterpean izango dira.
   - Ibilbidearen seinaliztapena:
     - **GR-121** Aritxulegiko lepotik Kausoko aparkalekura.
     - **PR-Gi 1006** Kausoko aparkalekutik Zaldinera.
     - **PR-Gi 1007** Zaldinetik Urmendi lepora.
     - **PR-Gi 1007-1008 lotura** (marka txuri-berdeak) Urmendi lepotik PR-Gi 1008ra.
     - **PR-Gi 1008** loturaren amaieratik Arritxulo Mendi Aterpera.
4. **Artikulua: IZEN-EMATEA**
   - Izen ematea www.kronoak.com web atariaren bidez egingo da, 2022ko martxoaren 14tik maiatzaren 5era bitarte. Egunean bertan izena emateko aukerarik ez da emango.
   - Izena emateko orduan parte hartu nahi den modalitatea aukeratu beharko da:
     - Ibilbide neurtua.
     - Mendi-lasterketa.
   - Izen-ematearen prezioak honakoak izango dira:
     - Izen-emate orokorra: Dortsala txiparekin, asegurua, kamiseta, hornidura poltsa eta dutxatzeko aukera **26€**.
     - Izen-emate orokorra eta bazkaria Arritxulo Mendi Aterpean **44€**.
     - Soilik bazkaria **18€.**
   - Gutxieneko parte-hartzaile kopurura (60 pertsona) iritsi ezean, Mendi Martxa bertan behera gelditukо da, une horretara arte izena eman dutenei ordaindutakoa itzuliz.
   - Gehienezko parte-hartzaile kopurua 250 pertsonakoa izango da. Hortik aurrera ez da izena emateko aukerarik egongo.

- Behin izena emanda, proban parte ez hartzea erabakitzen duenari ez zaio dirurik itzuliko.

5. **Artikulua: PARTE-HARTZAILEENTZAKO SEGURTASUN NEURRIAK**
   - Aurrez ezarritako edukiera kontrolatu eta probaz kanpoko inork parte hartu ez dezan, ezinbesteko jo dugu dortsal eta txiparen erabilera, dortsal bakoitza izen-abizen zehatz bati lotua egongo zaiolarik.
6. **Artikulua: KONTROL ETA HORNIDURA PUNTUAK**
   - Ibilbidean ez da kontrol edota hornidura punturik egongo. Parte-hartzaileek bere gain hartzen dute ibilbidea bere osotasunean egiteko konpromisoa eta irteeran emango zaio poltsa baten barruan hornidura.
7. **Artikulua: OPARIAK**
   - Ibilbide neurtuan, opari bat jasoko du antolakuntzak jarritako denbora egitetik gertuen gelditzen den parte-hartzaileak. Denbora hori zein den ez dute jakingo parte-hartzaileek martxa amaitu bitartean.
   - Mendi-lasterketan, ibilbidea denborarik gutxienean egiten duen lasterkariak jasoko du oparia.
   - Opariak ohiko posta zerbitzuaren bitartez bidaliko dira probaren hurrengo egunetan.
8. **Artikulua: DORTSALEN BANAKETA**
   - Dortsalak aldez aurretik jaso ahal izango dira Arritxulo Mendi Aterpean, maiatzaren 6tik aurrera. Antolakuntzatik dortsala maiatzak 6 edo 7an jasotzea gomendatzen dugu.
   - Dortsala aldez aurretik jasotzerik ez duenak, egunean bertan jaso beharko du 7:30tatik 8:15etara.
9. **Artikulua: INGURUGIROA ETA ZABORRA BOTATZEA**
   - Mendi Martxa Aiako Harria Parke Naturalean egingo da bere osotasunean, horregatik guztiz debekatua dago zaborra botatzea, edozein dela ere. Mendi martxaren helburuetako bat natur ingurura hurbiltzea baldin bada, ingurugiroari zor zaion begiruneaz jokatu beharko dute parte-hartzaile guztiek, zabor eta hondakinak eurekin eramanez helmuga puntura arte.
10. **Artikulua: ASEGURUA**
    - Izena ematearekin batera, eguneko asegurua izango dute parte-hartzaileek.
11. **Artikulua: APARKALEKUA**
    - Arritxulo Mendi Aterpean aparkaleku mugatua dago autoz iritsi nahi dutenentzako. Ahal den neurrian, auto berean etortzeko eskaera errepikatzen dugu.
12. **Artikulua: ATERPETXEAN DUTXATZEA**
    - Dutxatzeko aukera egongo da.

13. **Artikulua: ATERPETXEAN BAZKALTZEA**

- Arritxulo Mendi Aterpean bazkaltzeko aukera izen-ematean bertan eskainiko da. Parte hartzen ez dutenek ere aukera izango dute bertan bazkaltzeko, aldez aurretik hala eskatuta. Menuaren prezioa **18€**-koa da.

14. **Artikulua: COVID-19 ETA NEURRI BEREZIAK**

- Pandemiako testuinguru honetan, zaila da osasun-egoeraren bilakaera aurreikustea. Mendi-martxaren egunean indarrean dauden protokoloen arabera, neurri murriztaileak hartzeko aukera aurreikusten da. Hala balitz, informazioa helaraziko zaie parte-hartzaileei.

15. **Artikulua: DORTSALIK GABE PARTE-HARTZEA**

- Ezingo da mendi martxan parte hartu izena eman gabe. Dortsalik ez duten pertsona guztiak mendi martxatik kanpo daudela ulertuko da.

16. **Artikulua: ANIMALIEKIN PARTE-HARTZEA**

- Animaliekin parte hartzea baimenduko da beti ere mendiko araudiak betez.